

## EKONOMI JARDUEREN GAINEN ZERGAREN EXAKZIOAKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1.- Artikulua

Udal honek Ordenantza Fiskal honetan jasotako hobariak, koefizienteak eta indizeak finkatu ditu, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11 eta 12. artikuluetan aurrikusitako ahalmenak erabiliz.

### II. GUTXIENEN KUOTEN PONDERAZIOA

#### 2.- Artikulua

Udalerrri horretan zergapetutako jardueretarako zerga honen Tarifetan Foru Diputazio honek ezarri dituen gutxieneko kuotak I. ERANSKINEAN azaltzen den koefizientearen arabera gehituko dira.

#### 3. Artikulua

Udalerrriaren barnean Zerga honek zergapetutako jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. Artikuluaren arabera gehitutako kuotei II. ERANSKINEAN adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

#### 4. Artikulua

Gehikuntza koefizienteak eta kokapen indizeak, ordenantza honen 2 eta 3 artikuluetan hurrenez-hurren finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialesi eta bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

#### 5. Artikulua

Aipatu 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatzen diren II. ERANSKINEAN erlazionatutako kategorien arabera.

### III. TRIBUTUZKO ZERGA

#### 6. Artikulua

Zerga honen tributuzko kuota tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotez egongo da osatuta, erantsiz koefizienteak eta Ordenantza honetako 2 eta 3 artikuluen eta, kasua balitz, Foru Errekarguaren arabera dagokion indizeak.

### IV. HOBARIAK

#### 7. Artikulua

Udal honek, Ordenantza honen III. ERANSKINEAN jasotzen diren hobariak ezartzea onartu du.

### V. GESTIO ARAUAK

#### 8. Artikulua

1.- Zerga honen gestio, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak eskuordetu ahal izango dira Gipuzkoako Foru Diputazioarengan, Udal Batzarrak alde aurretik erabakitako eran, edukiarekin eta neurrian, eta horretarako hitzarmena sinatuz ondorioak izan behar dituen urtearen hasiera baino lehen.

2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira izenpetu ondorengo lehen sei hilabetearen barruan. Era berean, Aldizkari horretan bertan hitzarmen horien salaketa argitaratuko da.

3.- Lehen zenbakian erabakitakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak, kuota probintzial eta bereziei dagokienean.

## AZKEN XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta horren I. eta II. ERANSKINETako koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak, Udal Batzarrak, 1991ko urriaren 29an egindako batzarraldian onartu zituen eta 1992ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Halaber, Ordenantza hau azkenekoz aldatzen duen akordioa I ERANSKINEan adierazten den batzarraldian hartu zen eta hurrengo urteko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta erregelamenduaren arabera aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko da.

### I. E R A N S K I N A

Azken aldaketaren onarpen data:	2020-10-08
---------------------------------	------------

Koefizientea:	%2a
---------------	-----

### II. E R A N S K I N A

Kaleen kategoria, bakarra. Indizea:	1
-------------------------------------	---